

Session 2011

**CONCOURS DE RECRUTEMENT
DE PROFESSEURS DES ECOLES**

"Concours Spécial"

Épreuve écrite

BASQUE

Du Lundi 27 septembre 2010 de 13H30 à 16H30

Durée : 3 H - Coefficient : 2

L'usage des calculatrices et du dictionnaire est interdit.

BERTSO UDALEKUAK

« Ez dakigu zer egin beharko dugun, parte hartu eta... ». Orioko hondartza bazterrean (Gipuzkoa) haur koadrila zalapartatsuari begira dago Andoni Egana bertsolaria. Kantari eta jolasean ari dira 40 bat ume. « Baietz esan nuen bere garaian, bere ondorio guztiekin », dio, umoretsu. Iratxe Ibarra du lagun. Euskal Herriko Bertsozale Elkartek antolatutako bertso udalekuetara eraman dituzte biak. Hurrekin jolasean aritu eta bertso afaria egitekotan dira.

Haurrak hurbildu zaizkie bertsolariei, aurkeztu ahala. Badute zer kontatu. Bezperan, gauez, eskale itxuradun bi gizon azaldu, bi kide bahitu egin zituztela azaldu diete. Txantxa zen dena, begiraleek prestaturik. Haurren artean gipuzkoarrak eta bizkaitarrak dira nagusi, nahiz lapurtarrak eta nafarrak ere badiren. Zortzi eta hamabi urteren artekoak dira 41 haurrak. Orotara 329 umek dute parte hartuko.

Bertsozaleak dira Orion bildu umeak. Asko bertso eskolan ari dira. " Ni Eztitxu Arozenarekin ari naiz bertso eskolan". dio Joanes Illarregi leitzarrak (11 urte) ingurukoen arreta harenganatuz. Bertsoan iaioa dela erakutsi du. Tankera badu : erantzun azkar eta laburrekoa da. Bertsoa bota gogo die bertsolariei ere. « Etortzen zaidan doinuak eta neurrian » dio. Bederatzi puntukoan ere bai ? « Ez, horiek paperean soilik ! " .

Olaia Errandonea saratarrak (8 urte) Maialen Lujanbioren eskola segitzen du. Bertsolari hura du begiz joa, nahiz « abantxu denak » dituen gustuko. Olaia ere bertsoan aritu da udalekuetan. Sarako eskolan ere aritzen da bertsoan. « Doinuak, aireak eta horrelakoak ikasten ditugu, « azaltzen du, « Handitzean bertsolari izan nahiko nuke ». gehituz.

Bertsoak botatzeko zailtasunez Azpeitiko (Gipuzkoa) Jon Sudupe (11 urte), lagun taldearekin Oriola etorria denak: "Nik ez dut bertsorik botako lotsa ematen baitit, gainera ordubete behar dut pentsatzeko ! Eskolan bertsoan ibiltzen gara, koadernoan eta..." Jonen lagunek berehala irakaslea gidari dutela gehitu dute; eta hari segitzen diotela maizenik. "Hobe da horrela, guk ez baitugu kezkatu beharrik!" doitu du Jon Sudupe azpeitiarrak.

Bertsorik bota ezean gaia aldiz ezarriko diete hurrek Egana eta Ibarri. Taldeka antolatu dira gaien asmatzeko eta zinez gai originalak asmatu dituzte. Bilboko (Bizkaia) Oier Mallabiaren ustez, (10 urte) Egana eta Ibarra ez dira beldurtuko, zernahi gai emanik ere: "Milaka pertsonen aintzinean izitzen ez badira, gure aintzinean oraindik gutiago ! " iduritzen zaio.

Orioko udalekuko zuzendariaren, Eneko Beritxinagaren ustetan Euskal Herriko leku desberdinetako haurrak elgarrekin izatea aberasgarria da, horrela euskalki desberdinen entzuteko eta ezagutzeko parada baitute hurrek.

Mintzaira ezinbesteko tresna da bertso udalekuetan, usu jostatzen dira horrekilan. "Bertso giroa berez sortzen da...Udaleku hauek lagunen sortzeko balio dute, eta, baita ere, luzaz irauten duen adixkidantza horren biziartzeko. Bertsoa afizioa da eta luzarako afizioa" azaltzen du Arrate Illarok, udalekuko begirale honek.

Hastetik, 1998tik, hurbildu da Egana bertso udalekuetara. Lehena Hazparnekoa (Lapurdi) zen eta "orduan Xabi Paya, Aitzol Barandiaran eta Amets Arzallus ere han ziren" dio .

Hastetik bertso eskolak eta udalekuak pario bat izan ziren. Ez bait zen bertsoak ikasten ahal zirela denen iritzia.

"Pagoari ez da intxaurrik eskatzerik, artarakoa ez denak ez dauka zer eginik, ogei eskola pasatzen baditu ere !" zioen Eizmendi "Basarri" bertsolariak.

Ez zuen begi onez ikusi bertsotarako eskolen sortzea, haren irudiko bertsoa ikas ezinezkoa baitzen eta berezko dohaina zutenak baizik ariko ziren bertsogintzan. Orduan bertso eskolen kontrako iritzia plazaratu zuen Basarrik. Orduko bertsulari gehien gehientsuenen iritzia zen: " horretarako bertutea bazuenak bazuen eta ez zuenak ezin bertsurik egin" uste finko eta tinkoa zuten."

"Nihoiz ez da existitu nihun ikasi gabeko bertsolaririk. Han edo hemen ikasia zuten: nonbait, agerian ez bada ere non ikasi zuten" dio Fito Rodriguez ikerleak, "Bertsolaritza eta eskola doktore tesia egin duenak 1980ko hamarkadan eta gai hori sakondu duenak. "Bertsolarien elgarritzaketan nonbait ikasia zutela aldi oro egiaztatu dute: familian, lagunen artean, festetan edo giro jakin batean...Bertsolari gazteak halako egoeratan ikasi du, oharkabea bada ere!" zuzentzen du ikerleak.

Basarri bertsolariaren kasua deigarri zaio ikerle honi. Errezilgo (Gipuzkoako) bertsolariak berak eredu berria sortua baitzuen. "Basarrirentzat bere bertsogintza zen egin zitekeen bakarra eta hoberena," dio ikerleak.

Oraiko bertso eskolekin, halere, bertso eredu berria ere sortu dela segurtatzen du. Ahoz transmititu bertsoa bazen lehenagokoa; idatziz transmititzen dena da, aldiz, oraingokoa . Hortan da eredu aldaketa nagusia. "Ahozko kultura baten arabera funtzionatzen ari zen gizartea aldatzen ari zen, idazkera dela medio" Eta horrek ezinbestean haustura dakar: "pentsatzeko molde berria". Mattin edo Alkat bezalako bertsogintza errotik desagertu da. Orain Iparraldeko eta Hegoaldeko bertsoak berdintsuak dira. Homologatu eta homogeneousatuz joan dira," aztertzen du.

Sistema diferenteak baitira bertsotan ikasteko erabili direnak, aldea handia da ere ondorioetan. Rodriguezen solasetan ikasketa molde klasikoa ***jakiten ikastea*** sistematikoa da: praktika etengabearen bidez ikasten joatea, maiz oharkabea.

Bertso eskolek ezarri duten eredua, haatik, ***jakina dena ikastea da***: norbaiten jakintza beste norbaiti transmititzea, eduki jakin batzuk ikasleen artean hedatzea, lehenagoko moldean baino era ohargarriagoan.

75 Bertso eskolek ukan dute eragina bertsogintzan, aldaketa nabariak ikerle honen arabera. "Bertso eskoletatik heldu den bertsoa arrunt desberdina da: baliatzen duten mintzaira ere desberdina dute. Ikasteko duten sistematik heldu zaie hori, erran nahi baita lehenago logika asoziatiboa baliatzen zen; orain, aldiz, ideien logika erabiltzen dute bertsu-egile gazteek.

G. GOIKOETXEA (moldatua) 2010eko Uztailaren 25eko Berria egunkariaren
gehigarrian.

COMMENTAIRE GUIDE

Artikulu honen azterketa eginen duzu ondoko gogoeta-ardatz hauen inguruan :

1. Haurren esperientziak bertsogintzari buruz aipa eta komenta itzazu.
2. Ahozko literaturan bertsogintzak duen garrantzia erakuts ezazu.
3. Mintzairaren lantzeko bertsoa tresna egokia da: nola balia bertsogintza hizkuntza pedagogian ?

TRADUCTION

Itzul ezazu artikulu honen lehen zatia erran nahi baita lehen lerrotik hamekagarrenerat.